

“EUSKARA, HAURRAK ETA HEZKUNTZA” BATZORDE INFORMATIBOA

2011KO ABENDUAREN 15ean, osteguna, 18:45ean

**BERTARATUAK**

Esther Lasa Seisdedos  
Xabier Díaz Oficialdegi  
Javier Portillo Berasaluce  
Josu Montalbán Goicoechea  
Janire Alava Ribas  
Ainara Diago Santamarina  
Hagitz Bedialauneta Ibaibarriaga

LANDUTAKO GAIAK:

1. **Euskararen Nazioarteko eguneko adierazpena.**

**Batzordeak, aho-batez, honako adierazpena adostu du.**

La comisión, por unanimidad, acuerda el siguiente texto

ABENDUAREN 3a, EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Euskararen Eguna 1949ko abenduaren 3an ospatu zen lehen aldiz, Ipar Euskal Herriko hiru probintzietan eta munduan zehar barreiatutako Euskal Diaspora bizirik zen herrietan. Hego Euskal Herrian ezin izan zen horrelakorik egin, diktadurapeko errepresio egoera zela eta.

Urteek aurrera egin ahala Uruguaiako diasporako euskaldunen eskutik etorri zen egun hau berreskuratu eta instituzionalizatzeko eskaria, 1995. urtean hain zuzen ere. Eta ordutik, urtero – urtero Euskararen Eguna ospatzen dugu Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpoko euskaldunok.

Euskararen historia, hain da luzea, bere lehen pausoak noizkoak izan ziren argitzeko, ez dakigu zenbat urte atzera egin behar dugun ere. Batzuen ustez lehen europarren hizkuntza izan zen, batek daki...

Ezagutzen dugun historiak, hala ere, gauza batzuk argi erakutsi dizkigu: euskarak apurka-apurka, baina etengabe, antzinako hedadura asko murriztu du gaur egunera arte. Gure hizkuntzak auzokide, bizilagun eta bidaide asko izan ditu ibilbide honetan guztian zehar, askotan kultura boteretsuei zegozkienak. Baina, hala ere, inguruko kultura eta hizkuntza boteretsuek ez dute asimilatu, ez da hil. Euskarak iraun egin du.

Biziraupenezko historia honetan, ez du hizkuntza guztiek merezi duten balioespen, errespetu eta laguntzarik jaso. Izan ere, hizkuntzak eta kultura guztiak berdinak dira duintasunean. Guztiek behar dute berdintasunezko estatusa eta parekotasunezko egoera, mendetasunik gabe bizitzeko.

Duintasun eta berdintasun bide honetan, azken hamarkadetan zenbait instituziotan normalkuntzaren aldeko legeak eta euskara biziberritzeko planak martxan jarri dira, eta

herrigintzatik egin den lana izugarria izan da ere euskararen normalizazioa bultzatzeko. Baina oraindik orain, euskara ez da ofiziala Euskal Herri osoan, arlo askotan traba eta babes falta handiarekin topo egiten du.

Beraz, hiritargoari eta euskal erakundeei dagokie, era progresibo eta orekatuan, normalkuntzaren aldeko lege hauek barnean dituzten ahalmen ugariak garatzea: alde batetik euskararen garapena handitzea presentzia eskasa duen esparruetan; eta bestetik, orain arte egin den bidean lortu diren hiztun berrien beharrezkoak asebetetzeko egokitzea.

Izan ere, Unescoren azken txostenaren arabera, euskarak galtze arriskuan dagoen hizkuntza gutxitua izaten jarraitzen du. Honek, ezinbestean zera adierazten du: oraindik hainbat esparrutan lan handia dugula egiteko.

Pertsona bakoitzaren hizkuntza aukerarekiko errespetua lehenetsi behar dugu, eta ahaleginak egin behar ditugu nahi duen guztiak euskara ikasteko aukera eduki dezan, hala nahi duenak euskaraz ikasteko aukera izateko; eta edozein esparrutan, eremu pribatuan zein publikoan, euskara erabiltzeko duen eskubidea aitortu eta errespetatu egin behar zaio. Azken finean, euskararen erabilera bultzatu behar da bizitzako esparru guztietan. Hala nahi duenak euskaraz bizitzeko parada izan dezan.

Ondorioz, gure hizkuntzaren indartzea eta normalizazioa ezinbesteko ditugun helburuak geureganatu behar ditugu: hiritar bakoitzaren konpromisoa euskarari balioa eta erabilera eman diezaion bere inguru hurbilenean; herri erakundeen inplikazioa, bizikidetzeta eta bakoitzaren hizkuntza aukera errespetatuta, euskararen ezagutza, transmisioa eta erabilera, egoera orotan susta ditzaten.

Zallan, urtez urte, euskararen ezagutza hazten ari den bitartean, erabileran ez da horrenbesteko aurrerapausorik antzematen. Aurrerapauso hauek gauzatzeko behar beharrezkoak dira baliabideak eta instituzioen laguntza eta hauspoa.

Hala ere, jauzi kualitatibo bat eman beharra daukagu herritarrok: “Euskararen alde nago”tik “EUSKARAZ BIZI NAHI DUT”era pasatzeko. Zallan, %20a euskaldun osoak dira eta euskaldun hartzaileak %22 inguru. Banakoak euskara erabiltzearen aldeko konpromisoa hartzen badu, herriko errealitatea zeharo aldatu daiteke, aitaturako portzentajeak haziaraziz.

Azkenik, Zallako Udalak hau ahalbidetzeko bere erantzukizunaren tamainako konpromisoa hartzen du eta herritarrekin batera euskarazko aukerak sustatzean eragile aktibo izateko ardura eta normalizazioaren aldeko politikak garatzekoa bere gain hartzen ditu.

## 2. Bestelakoak / Otros

- **Ibilaldia 2012ri diru-laguntza ematea / Subvención a Ibilaldia 2012**

**Batzordeburuak aurtengo Ibilaldirako 400 euroko diru-laguntza ematea proposatu du. Bozkatu ondoren, hauek izan dira emaitzak:**

**ALDE: Hagitz Bedialauneta, Esther Lasa eta Josu Montalbán.**

**OSOKO BILKURAN ADIERAZIKO DUTE: Janire Alava, Ainara Diago, Xabier Díaz eta Javier Portillo.**

**ZALLA BAI udal taldetik, honekin lotuta, honako proposamena luzatu da: Egun horretarako Udalak autobus bat jartzea.**

**Aho-batez onartu da proposamena.**

Se propone conceder subvención de 400 euros para el Ibilaldi de este año. Después de votar, se obtienen los siguientes resultados:

A FAVOR: Hagitz Bedialauneta, Esther Lasa y Josu Montalbán.

**SE PRONUNCIARÁN EN EL PLENO: Janire Alava, Ainara Diago, Xabier Díaz eta Javier Portillo.**

Unido a este tema, desde el grupo ZALLA BAI se lanza la siguiente propuesta: que el ayto. organice un autobús para ese día.

Se aprueba la propuesta por unanimidad.

- **Guraso elkarteei diru-laguntzak / Subvención a las AMPAS**

**Aurreko batzordean plazaratutako eta onartutako proposamena praktikoki lege-arauei jarraituz aplikatzeak duen zailtasunak ikusita eta honen ondorioz sor litezken ondorio negatiboez jakitun, beste proposamen bat plazaratzen da batzordean:**

**Mimetiz eta Maristas ikastetxeetako guraso elkarteei bosna mila euro esleitzea ekintza orokorretarako eta erreserban 6200 euroko diru kopurua uztea ez-ohiko diru-laguntzetarako.**

**Aho-batez onartu da proposamena.**

Se expone otro procedimiento para otorgar subvenciones a las AMPAs de Mimetiz y Maristas, valorando que la anterior propuesta (expuesta y aprobada) implicaba dificultades y consecuencias nocivas, a la hora de su aplicación práctica, ajustada a ley. Es la siguiente:

Consignar 5000 mil euros para cada AMPA y dejar en reserva 6200 euros para subvenciones extraordinarias.

Se aprueba la propuesta por unanimidad.

**Horrenbestez, batzordeari bukaera eman zaio 18:30ean**

Se da por finalizada la reunión a las 18:30.